



ZAILA

LEKORNE

# Xantxo

Distantzia <b>11,7 km</b>	Desnibela <b>850 m</b>	Iraupena <b>4h30</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarriak <b>PR seinaleak</b>
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	----------------------------------

Hazparnetik, Donapaleu eta Donibane Garaziko norabidea segitu (D22). Lekuinen, Donapaleuko bidea ezker utzi eta zuzen segitu Lekorne aldera, eta gero Heleta aldera (D22), kasik 8 km-tan. Heleta urtzineko biribilgunean, eskuinera joan, Baigurako aisialdi gunera buruz (D119). Ibilgailua 2,5 km urrunago aparkatu, Baigurako aisialdi gunearen parean, bidearen ezkeraldeko aparkalekuan.

GPS datuak : **UTM : 639280 - 4796588 Lat/Long : 43.30922/-1.28259**

**B**aigura mendian, itzuli berezi bat egiten duen iraupen luzeko ibilbidea. Bistalekutik igoaldi bizkor baten ondotik, isurialde basatiago batean, Xantxo lepoaren eta Lapitzeko ikuspegi zabaleko bideen bilaketan, ibilbide honek mende-baldeko Baigurako bisita ederki osatzen du.



### 1. ZATIA > Aisialdi gunetik Buztingorri bordara


UTM : 639280 - 4796588. Aisialdi gunearen pareko aparkalekutik (300 m), etxe baten kontra hasten den bidea segitu (abiapuntua seinalea). Sigi-saga iragan eta bidean igo. Zuhaitziaren ondotik, ezkerreko bideari kasurik ez egin eta zuzen segitu. Pentze hesituaren zokoan, ezkerreko bide zuta utzi, parean duzun bidexka segitzeko, oihanean. Bidexkak ibarxka heze baten hondoa mozten du, eta gero, beste aldera igaten da eta laster oihanetik ateratzen. Mendi-mazelan segitu bidexka on batean (Urtsua mendirako ikuspegia). Erreka bat zeharkatu eta, ezkerreko desnibeletik (eskuineko bideari kasurik ez egin), seinalatutako bidexkara iritsi: ezkeraldera segitu. Bi erreka-adarrekin bat egiten du, eta ondotik, Pagazaharretako goi-zelaitik iragaten da.

### 2. ZATIA > Buztingorri bordatik Baigurako orientazio mahaira

UTM : 639035 - 4795883. Jaitsiera labur baten ondotik, bidegurutzean (erreka - 420 m), pareko bidexka hautatu: Baigurako bidea moztu eta zure parean den bide onean igo (urki bakartia). Goi-zelai belartsuan, belarrean zuzen igo, arditegi baten gainean (Buztingorri). Ezagutza-bidexkaren bidegurutzeari kasurik ez egin eta beti zuzen igo pagadirantz. Beste bide bat moztu eta gero, bidexkak eskuinerantz zeharkatzen du, beti zut-zut, tontor-lerro arrokatsu baterantz. Bi bihurgune marrazten ditu zuhaitzen azpitik, eta harri mokorren artetik sigi-saga doa. Arraila ttipi bat pasatzean (740 m), bidexkak gora doan zeharkatze zuzen bat marrazten du orain, Baigurako gailurrera buruz. Errepide bihurgune baten gainetik pasatu. Azken bihurgunean, ezker, belarrean igo eta eskuinaldera doan tontor-lerroa segitu orientazio mahaira iristeko.

### 3. ZATIA > Baigura eta Xantxo leporako jaitsiera

UTM : 638580 - 4794660. Orientazio mahaia pasatu eta 50 m urrunago, igorgailu hesituen eskuin aldetik iragan, eta errepide eta bideak segitu azken antenataraino (872 m - Baigurako gailurra ezker). Segidan, mendi gainetik behe-ra jaisten hasi. Lepo belartsu eta harri mokor gune batera heldu aitzin, belarrean, eskuinaldera, 50 m-tan zeihartu, eta arrunt eskuinera joan, abere-saldoen bidexka topatzeko. Bidexka horretatik jaitsi, malda belartsua luzaz zeharkatu. Bi bidexka aurkezten direlarik (Y), ezkerrekoa hautatu. Kasko borobilduan, bidegurutzean (593 m), bide zuzenari kasurik ez egin eta zeharkatuz segitu (ezker/eskuin).



Bi elorri zurien azpiko bihurgunearen ondotik, bidexkak lehen lepo belartsu bat zeharkatzen du (456 m) eta zuzen segitzen.

### 4. ZATIA > Xantxo lepotik Oihan auzora, Lapitzetik

UTM : 636845 - 4794913. Xantxo lepotik (446m), azken hau iragan gabe, eskuin hartu eta aurkezten diren bi bideetatik ezkerrekoa hautatu (lur gorria). Pago handi batzuen azpitik iragaten da, eta Lapitzeko Y itxurako bidegurutzera heltzen (420 m): eskuin aldera jaitsi muino panoramiko baten gainean ibiltzeko (atexka), behe-rago bi borden artetik pasatu. Behera-go, mundrunezko bidean beheiti joan ibarraren hondoraino, Oihan auzoan.

### 5. ZATIA > Oihan auzotik Pagazaharreta goi-zelaiara

UTM : 637024 - 4796757. Oihan auzoko T itxurako bidegurutzean (155 m), bidean eskuinera joan. Erreka baten bazterretik joan eta borda batera igo; justu ondotik, bidea utzi, ezkerrean hesi baten bazterretik doan bidexka segitzeko. Bidexka hori segituz zuzen igo, Erregeluko harkaitzen azpitik. Gaztainondo oihanetik, bidexka zut-zut igo iratzedi baten gainerantz. Oihan baten gainean, bidexka arrokatsu eta zuzen batean indarra egiten segitu. Gainean, iturri bat zeharkatu (404 m) eta laster bidegurutze batera heldu Pagazaharreta goi-zelaiaren sarreran.

### 6. ZATIA > Pagazaharretatik aisialdi gunera

UTM : 638814 - 4796029. Errekarantz doan jauste motz baten ondotik (420 metro), bidegurutzearen pareko bidexka hauta ezazu. Baigurako bidea trebesa eta zure aitzineko bidexka ona igo ezazu (urki bakartia). Ordoki belartsuan, Buztingorriko arditegi-ezkerretik jaitsi zaituzte, joaterako bidea kontrako aldetik hartzeko. Laster, Y-an, kasu emazu, ezker aldean eta hesi bazterrean den bidexka hautatzea, aisialdi gunerantz itzultzeko.

## INTERESGUNEAK

### ❖ Aisialdi gunea

Kanpoko jarduera ugari praktika daitezke Baigurako aisialdi gunetik abiatuz: ibilaldiak noski, baita trail, parapentea, mendiko bizikleta, lur orotako trotineta edo eskalada ere. Artzaintza ere Baigurako eragile nagusienatarikoa izaten da, eta elkarbizitza ona mantentzea ezinbestekoa da denen erosotasunerako.  
UTM : 639251 - 4796663

### ❖ Pottoka (3,4 km)

Milaka urtetan eskal mendien menean izanik, pottoka, tokiko arraza primitibo bateko zaldi ttipi eta zaildua da. Gaur egun heziak, haien jabeek mendian libreki ibiltzen uzten dituzte, behor eta zaldikume talde ttipitan, bertan paisaien mantentzean anitz parte hartzen baitute.  
UTM : 638642 - 4794999

### ❖ Harrespilak (3,8 km)

Baiguran bai eta Euskal Herriko gailur askotan ere, harrespilak badirela ohartzeko gara, biribilean ezarritako harrien bidez aurkezten dira. 3000 urteko hilobi-monumentu zaharrak dira, non garaiko artzainek zenduen hautsak ezartzen zituzten.  
UTM : 638569 - 4794642

### ❖ Ardi manexak (4,55 km)

Ardi manexa muturgorria arraza zaildua da, aspaldianik euskal mendietan finkatua. Bere artile zuri eroriari, dilindan dituen belarriei eta buru gorriari esker, laster ezagut daitezke. Esne-ardi emankorra da, eta bere esnea baliatzen da Jatorri Deitura Kontrolatutako Ossau-Irati gasna egiteko.  
UTM : 638202 - 4793999

### ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

3,7 km: Xantxo lepoaren bidexkaren abiapuntu ikusgaitza, ez hain erraz lainoak direlarik  
UTM : 638247 - 4794063

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Baigurako aisialdi gunea, haurrentzako jokoak, jarduerak, ostatu-jatetxea  
UTM : 639251 - 4796663

- 2,9 km: Baigura, orientazio mahaiaik  
UTM : 638580 - 4794660

# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guziren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Gainera izan zaitetz garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarri jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoekin.